



Joan Mari Torrealdai

EGUNKARIAKO KONTSEILU EDITORIALEKO ZUZENDARIA

Gune bateratzaile, indar eragile

Urriaren 21eko EGUNKARIA eskuetan hartuta iraganari begira jarriz gero, hamaika gogoeta egin daitezke, mila kontu gogora ditzakegu. Orain bost urteko bataiatze hura, bedeinkazio zenbait falta zituen arren, ederra izan zen oso. Baina bataiatzeak konfirmazioa ekarri ohi du; eta urriaren 21eko konfirmazioa, bedeinkazio guztietan oraingoan, ba-

Egunkaria egunero ateratzeaz gain, hona gure apustua eta erronka: kultur zerbitzu eta produktu berrien euskarri bultzatzaile eta bideratzaile izatea

taiatzea bezain ederra izan zen gutxienez. Etorbizunari begiratzeak eskatu didate, ordea, urtekari honen arduradunek eta orain bost urte fikziozkoa irizten genuen EGUNKARIA eskuetan dudala ohar-tuta, orain egin dezakedan fikzioa bost urte barru errealtatea izan daitekeela ziur naiz. Oinarri sendoa badugu, gainera, horretarako. EGUNKARIAK bere lehen aroko gailurra jo du urriaren 21arekin, eta etorkizunera jauzi egiteko plataforma badu urriaren 21ean.

Mugarriak garrantzi berezia du, kazetak azalez eta mamiz egin duen jauziak gainera, berrogei herri-afarien eta Miramarko harre-raren arrakastak EGUNKARIAren indar-raren neurria eman digulako. Ongi etorri afariek erakutsi digute milaka lagun ezinbesteko babesa duela gaur egun, eta Miramarko jauregiko ekitaldiak erakutsi digu herri honetako euskaldunak ordezkatzen dituzten erakunde, alderdi eta mugimendu guztien babesa duela EGUNKARIAK.

Bere edukian zabalda ezetik bere ekinean, agindu bezala, baterakoa izateak eman dio babes eta indar hau EGUNKARIAI, baterakotasuna baita gure egitasmoa, eta elkarlana gure metodoa. Baina zabalda, nazionala, euskaltzalea eta baterakoa izateari eutsi ahal izateko independentzia beharrezko izan genuen, beharrezko dugu eta beharrezko izango dugu. EGUNKARIAK independentzia politikoaz gain, independentzia ekonomikoa nahitaezkoa du bere jardunean, inolako menpekotasunik gabe, euskaldunon (euskaldun guztien) egunkari izaten segitu nahi badu. Baliabide ekonomiko propioak sendotzera bideratu behar ditugu, beraz, datoen urteotako gure urratsak.

Gure paperezko produktuak egundoko aurrerapausoak eman ditu bost urte hauetan — ez dakit bertako kazetariak, eguneroko notiziarekin borrokan, produktuak eman duen jauziaren neurriaz jabetu diren, baina lerro hauetatik adierazi nahi diet ikaragarria izan dela hobekuntza —, eta emango dituz datoenetan ere, dudarik ez.

Baina gureak eguneroko paperezkoa baino dezente gehiago izan behar du. Ekinaren ekinez euskal gizartearen lortua dugun lekutik, multimedien garai erabakigarri honetan, euskal kultur industriaren gune bateratzaile eta indar eragile izan gaitzake, eta izan behar dugu. Euskaldunak beharrezko dituzten kalitatezko produktuei orain ez duten zabalkundea emateko aukera du EGUNKARIAK. Egunkaria egunero ateratzeaz gain, hona gure apustua eta erronka: kultur zerbitzu eta produktu berrien euskarri bultzatzaile eta bideratzaile izatea, jada badiren eta sortuko diren proiektu eta enpresa euskaltzaleekin elkarlanean.

Iruñea bisitatzea, Alde Zaharreko kaleetan galtzea, Katedrala...

Bertako gastronomia, ardoak... dastatzea. Turista gisa iritsi eta etxean bezala sentitzea...



Iruñea,
bizi-pozaren
iturri!



Ayuntamiento de Pamplona
Iruñeko Udala